

# FONOLOGIAREN MUGAK: ALABEA ETA BIRJINAK ELEXAN<sup>\*1</sup>

*Miren Lourdes Oñederra*

## 1. ATARIKOAK

Izenburukoak Txillardegik (1980, 81) /aa/ bokal elkarketaz ematen dituen adibideak dira. Izan ere, bere azkartasunean, garden jasotzen du arazo-aren muina deskribatze fonetikoari dagokion *Euskal Fonologia* liburuaren zatian. Irtenbide fonologikoen orduan, ordea, plurala eta inesiboa ez dira agertu ere egiten (op. cit., 269). Ez dut uste tarteko ia berrehun orrialdeetan barrera ahaztu egin zaizkionik. Besterik gabe, esango nuke fonologia egiteko hartu zuen eredu teorikoak ez ziola biderik ematen beste ezer esateko, areago joateko. Gauza berria zen teoria Sortzailea. Fonologian, 1968ko teoria estatu batuarra (Chomsky/Halle 1968) 1980an “moderno” zen oraindik gure artean eta J. L. Alvarez Enparantza, Txillardegi, izan zen euskararen analisirako erabili zuen lehena.

---

<sup>1</sup> 1996an Milwaukee-n (Wisconsin) <Conference on Functionalism and Formalism in Linguistics> Biltzarrean aurkeztu nuen komunikazioaren zati baten moldaketa da hau. Orduan bezala, orain ere, eskerrak eman nahi dizkiet era batera zein bestera (baina asko), lagundu zidaten Jokin Espilla, nere *kontakto* ondarroarrari, Pilartxo Etxeberria zaldibiar lankide adiskideari eta Ricardo Gómez, Filologian laguntzaile eta adiskide onari. Goierrri aldetik orduan oraindik alboratu ez zitzaidan Oroitz Jauregiren laguntza ere eskertzekoa da eta izango delakoan nago. Bernhard Hurch-i ere eskerrak, nire zalantzak zalantzan jartzeagatik. Hutsak, noski, nire-nireak dira.

Izarra (\*) ustezko forma posible baina dokumentatu gabeetarako erabiltzen da. Forma ez-gramatikalak izar bikoitzaz (\*\*) markatzen dira.

Uste dut matematikaren lilurak harrapatu zuela Txillardegi sare itxiegia zen linguistika batean. Formalistaegia zen eredia erabili zuen hizkuntzalari bezala gauzen deskripzioan gelditzeko instintorik bat ere ez zuen eta ez duen hizkuntzalariak. Agian 1968ko teoria sortzaile klasikoan ikusi zuen bere ingeniari nortasuna bere hizkuntzalari bokazioarekin uztartzeko aukera. Kontua da, ordea, erakargarri izanik ere hizkuntza ezin dela sare matematiko txukun egituratueta erabat sartu. Beti dago zerbait ihes egingo diona. Agian, ingeniarekin batera, literatoa behar genuen fonologian, beste errealitate bizi asko bezala hizkuntza (baita hizkuntzaren fonologia ere) historikoa dela ikusten duena: historikoa bai bere diakronian, baita bere sinkronian ere... Baina egia da euskararen fonologi analisiari ezarri zion eredu teoriko hark ez zuela horretarako betarik ematen. Fonologi ikuspegi indartsuegia zen, gazte zelako, eta ez zituen bere mugak ikusten. Ez zirudien ahoskerarekin zerikusia zuen ezer fonologiaren analisitik kanpo gera zitekeenik.

Egia esan, ez zen gutxi orduan euskal fonologia osoaren erretratua egin ahal izatea. Horretarako aukera paregabea eskaintzen zuen Chomsky eta Halleren 1968ko ereduak, eta Txillardegik, horretaz jabetuta, euskarari ezarri zion analisi molde berria. Ezarri eta *ekarri*, bera izan baitzen, hizkuntza bere osotasunean hartuta, euskarari buruzko lanean lehenengo erabili zuena. Txillardegirena izan zen Generatibismoaren moldeetan egindako lehen liburua gure artean<sup>2</sup>. Orain erraz da zenbait gauza esatea, orduan, esaterako 1982 urtean, lehenengoz euskal fonologia irakatsi behar izan nuenean, Txillardegiren *Euskal Fonologia* izan ez bagenu, ez dakit zer egingo nuen.

Nik gaur hemen dakardana beste ikuspegi bat da, Fonologia Naturalaren bidetik datorkidan esplikazio saio bat (Donegan/Stampe 1979, Lampe 1979, e.a.). Izan bedi eztabaida proposamen hau Txillardegirentzako opari, eztabaidarako gogoia eta lanerako grina pizten duenari beti zor zaion esker onaz.

Lantxo honetan erakutsi nahi nituzke David Stamperen Fonologia Naturalaren abantailak euskal fonologiaren ordezkatzeko baten analisian.

<sup>2</sup> Badakigu Mitxelenak Generatibismoa ongi ezagutzen zuela ordurako bere zenbait lanetan egiten dituen aipu eta iruzkinengatik, baina beretzat erreferentzia osagarri eta teorikoa izan zen. Ez zuen hartu analisi praktikorako oinarri bakar eta funtsezkotzat inoiz. Ez da egia, bestalde, Etxeberririk (1990, 39) ulertaraz lezakeena Fonologia Sortzaileari dagokion azpiatlearen, Salaburu bakarrik aipatzen duenean. Txillardegi (1980) horren goragoko atalean agertzen da lan orokorren artean, letra txikiagoan esaten delarik Txillardegirena ere Fonologia Sortzailearen ekarpena dela. Salabururena baino lehenagokoa, gehituko nuke nik. Hemen aurkeztuko dugunaren aldetik, gainera, ez zion Salaburuk ezer berririk erantsi Txillardegik ekarri zigun teoriari.

Stamperen teoriaren funtsean dago bilakabide fonologiko eta erregela morfologikoen arteko bereizkuntza ezinbestekoa. Uste dut ordezkatzeko mota bien arteko alde ontologiko eta teleologikoa erabat lagungarri gerta dakigukeela gai hartu dudana arazoan.

## 2. ARAZOAREN AURKEZPEN LABURRA.

Beheko bokalaren igotzeaz ari naiz, hain zuzen ere beheko bokal hori nolakotasun bereko beste bokal batekin bilkuran suertatzen deneko igotze horretaz: e.b., /alaba+a/ → [alaba].

Disimilazio itxurako ordezkatzeko hori pluralean inoiz ez gertatzea ikuspuntu diakronikotik esplikatu zuen Michelenak ([1981] 1987): plural atzizkiak ez ziren oraindik atzizki, igotze-ordezkatzeko emankor zen bitartean. Horregatik, ordezkatzeko ez zituen plural formak harrapatu. Egungo egitateari arretaz begiratu gero, ezin da besterik gabe onartu Mitxelenaren hipotesiaren osagarri dena: alegia, bokal igotzearen emankortasuna agortua zela plural markak atzizki bihurtu zirenerako. Behin baino gehiagotan ontzat hartu izan bada ere (vid. De Rijk 1970, Hualde 1993a), badira hipotesi horrek lekurik gabe uzten dituen datu sinkronikoak.

Gorago aipatu Fonologia Naturalaren ordezkatzeko fonologiko eta morfologikoen arteko bereizkuntzaren esplikazio-ahalmena baliaturik, aldarrikatuko dut morfonologiari berezko esparrua aitortzen ez diogun bitartean estrategia formal *ad hoc* asmatuak besterik ez ditugula izango eta jarraituko dugula gure hizkuntz lanetan gramatikari dagozkionak fonologian bortxaz sartzen<sup>3</sup>. Hori, noski, bien kaltetarako gertatuko da: hizkuntz fenomenoaren ulermenaren kaltetarako eta fonologiaren esplikazio gaitasunaren erako.

Oso labur esanda, hona hemen, Fonologia Naturalean oinarriturik, gure datuen analisirako proposatzen dudana bereizkuntza teorikoaren oinarria (ik. Donegan eta Stamperen lanak ikuspuntu teorikoa sakondu eta zabaltzeko):

- a) bilakabide fonologikoak lirake arrazoi fonologikoengatik gertatzen diren hots ordezkatzeko mentalak, ebakeraren edo oharrenaren aldetik fonetikoki esplikatu daitezkeenak (hiztunak, hots ekoizle eta hartzaile den bezainbatean, hizkuntzari dakarkiona)

<sup>3</sup> Morfonologiarentzat berezko esparrua aldarrikatzean, fonologiarekiko apartekotasunaz ari naiz. Ez dut hemen ezer esaten morfologiarekiko hartuemanaz.

- b) erregela morfonologikoak lirateke hots-ordezkatze arautuak, hiztunak hizkuntzaren gramatika eta lexikoa ikasi ahala ikasi behar dituenak, hots ordezkatze izanda ere, baldintza gramatikal edo lexikoak dituztenak (alegia, hizkuntzak hiztunari dakarkiona)

Hots-ordezkatze mota bien izaera ezberdintasun hau hobeto ulertzeko eta azterkizun dugunaren analisirako aintzat hartu behar da bilakabide eta erregelen historikotasuna. Zuzenean dagokigunetik abiatuta, jakina da bilakabide bat bere bizibidean baldintza fonologikoen morrontzatik libra daitekeela. Horrek ez du esan nahi, ordea, ordezkatzea hil denik (ik., besteak beste, Wurzel 1980 edo Sapir 1921, 8. kap.). Hain zuzen ere:

- (1) «(...) it is when merely phonological factors no longer condition an alternation that the alternation must be perceived in its own terms, and thus can assume grammatical or semiotic significance»

Stampe, "Yes, Virginia...", 16.

Hortxe, bilakabideak bilakabide izateari utzi dionean, orduan irekitzen den aukeran kokatuko nuke gaur aztergai duguna. Esango nuke pentsabide horrek, bi ordezkatze mota eta elkarren arteko hartueman historikoak aintzat hartzen dituenak, lagunduko digula zenbait euskalarik ordezkatze honetan ikusi (edo ez-ikusi) dituzten arbitrariotasun eta paradoxak uxatzen.

### 3.1. Beheko Bokalaren Igotzea.

Labur eta simple azalduta, aztergai dugun ordezkatzea, Beheko Bokalaren Igotzea (hemendik aurrera, BBI)<sup>4</sup>, bi /a/ bokalen bilkuran jazotzen da, lehenaren nolakotasuna aldatzen delarik maila batez igo eta palatalduz: alegia, /aa/—>[ea]. Oro har, euskal hizkuntz eremuaren mendebaldeko eta erdialdeko hizkera zenbaitetan gertatzen da<sup>5</sup>.

<sup>4</sup> Low vowel raising (LVR) da hemen gai dugun gertakariari ingelesez eman zaion izena. Hau ez da neri atera zaidan itzulpen literala baino. Izango da agian ni baino gauza txukunagorik aurkituko duenik.

<sup>5</sup> Nik Gipuzkoako Goierrikoak hartu ditut oinarri—zehazki Ataun-Zaldibi ingurukoak—. Nirekiko gertutasunaz gain, hauek abantaila handia dute analisiaren argitasunaren aldetik. Izan ere hemen aztertu nahi den ordezkatzean geratu da bokal bilkuraren eratorpen fonologikoa, beste zenbait hizkeratan izan duen garapenean aurrera egin gabe (ea>ia>ie>i>i katean barrena abiatzen diren euskarez ari naiz: ik. beheraxeago, testu nagusian). Dena den, badirudi ordezkatzea gainbehera doala eta belaunaldi gazteen ahoskeran salbuespenak ugari direla. Agian horregatik, De Rijk-ek ez du Goierrikoa aipatzen (1970:152).

Gauzei geografiaren aldetik begiratuta, BBI Bizkaiko probintzian eta Gipuzkoan bizkaiera sartzen zen zenbait lekutan aurkitzen da, baita Gipuzkoako Goierriko hizkera batzuetan ere.

Badirudi batzuetan eta hizkera zenbaitetan BBI /a/ bokalaren aurrean ezezik, beste bokalen inguruan ere gerta daitekeela, batik bat /o/ erdikoarenean: /neska+ ori/—> [neskiori]. Euskalkietan nola banatzen den ikusrik, De Rijk-ek (1970:152) uste du /o/-ren aurreko igotzea berrikuntza dela.

BBI zenbait hizkeratan bigarren bokalaren areagoko igotzearen bazkatzaila (*feeding*) izaten da (e.g. Deba *neskaa* —> *neskea* —> *neskia*) eta , hortik, baita bigarren bokalaren igotzearena ere (e.g. Bermeo *neskaa* —> *neskea* —> *neskia* —> *neskie*). Argitasunaren mesedetan, hemen lehen ordezkatzearan gelditzen diren euskalkietako adibideak erabiliko dira (e.g. Zaldibia *neskea*)<sup>6</sup>.

Disimilazio itxurako ordezkatzeko honen maiztasuna ez da nolana hiko: aski da horretaz jabetzeko aintzat hartzea mugatzailearen forma fonologikoa /a/ dela eta ez direla gutxi bokal berorretaz amaitzen diren erroak euskal hiztegian. Hona hemen ordezkatzeko agertzen duten adibide batzuk:

(2) ABS. SG.

|           |    |          |
|-----------|----|----------|
| abelera+a | —> | abelerea |
| gona+a    | —> | gonea    |
| gauza+a   | —> | gauzea   |
| neska+a   | —> | neskea   |
| tanga+a   | —> | tangea   |

Maiztasun soilari begiratu beharrea, gertakortasunaren tankeratzeari begiratuta, ordea, ordezkatzeko honek murriztapen handiak ditu. Nabarmenenetik hasita, ez da gertatzen forma pluraletan, nahiz eta hauek ere, bakoitzari dagokion singularrak bezalaxe betetzen dituzten ordezkatzearan baldintza fonologikoak. Absolutibozko formetan, ikus daiteke, /ak/ hartuz gero plural atzizkitzat, singularrean bezalaxe egingo duela topo /a/ bokal irekiarekin erro azkenak<sup>7</sup>. Haatik, nahiz eta erro azken hori /a/ izan, pluralean ez

<sup>6</sup> Hots aldaketen abiadurei buruzko lan baterako gai izango litzatekeena hemen aipatzea nahitaezko gertatzen zait. Dirudienetz eta egungo testuak orduko hango lekuko bada, XV mendeko Deba inguruko euskarari [ea] zen bokal elkarketa honen garapen maila (Endecha de Doña Milia de Lastur, Garibayk jaso eta Michelena (1964, 75-79) aztertuta: *almeneari* < *almena+ari*). XIX. mendearan azken urtetan jaiotako gure amaren ahoskeran [neskia] bezalakoak dira oraindik arau. Ondorengo (gure gurasoen) belaunaldian kontradibideak adibideak bezain ugari direla esango nuke.

<sup>7</sup> Dagokigunerako berdin da atzizkia nola analizatzen den. Berdin da, alegia /a+k/ dela esatea, /a/ hori mugatzailetzat hartuz. Fonikoki ez da ezer aldatzen.

da [e] ordezkorik gertatzen. Erka dezagun ondorengo goragoko (2) adibideekin:

|              |    |          |
|--------------|----|----------|
| (3) ABS. PL. |    |          |
| abelera+ak   | —> | abelerak |
| gona+ak      | —> | gonak    |
| gauza+ak     | —> | gauzak   |
| neska+ak     | —> | neskak   |
| tanga+ak     | —> | tangak   |

Egia da singular eta plural atzizkien artean badela diferentziarik, izan ere marka morfologiko ezberdinen egitekoa horri eskerrak bete dezakete beti. Fonikoki adierazita desberdintasuna, pluralak -eta ez singularrak- azkenean agertzen duen /k/ kontsonantean datza.

Bada, ordea, euskal flexioan beste kasu bat hitz azkeneko /k/ hori dakarrena: ergatiboa. Bestela esan, kasu horrek plural atzizkiak jartzen dituen baldintza berak jartzen dizkio /a/-z amaitutako erroari. Halere, adierazten dena ergatibo singularra denean, BBI jazotzen da. Horrek erakusten digu, nire ustez, *tout simplement* esku artean darabilkiguna ez dela pluralean gertatzen (edo, ziurrenik hobe, singularrean bakarrik gertatzen dela). Adibide hauetan ikusten da (3) fonologikoki absolutibo pluralaren baliokide den ergatibo atzizkiarekin BBI gertatzen dela<sup>8</sup>:

|              |    |           |
|--------------|----|-----------|
| (4) erg. sg. |    |           |
| abelera+ak   | —> | abelereak |
| gona+ak      | —> | goneak    |
| gauza+ak     | —> | gauzeak   |
| neska+ak     | —> | neskeak   |
| tanga+ak     | —> | tangeak   |

Ergatiboak erakusten diguna alde batera utzirik ere, fonologikoki pentsatzen jarrita, ez litzateke erraz hitz azkeneko /k/ horren presentzia bere aurreko bokalen arteko disimilazio ezarekin kateatzea esplikazio on batek

<sup>8</sup> Mugagabe eta pluralak berdintzera jotzen dute ergatiboan. Badira inguru horretan aintzat hartu beharreko zenbait gauza jakin: bereizkuntza beharra ahulago izan daiteke pluralarentzat singulararentzat baino (aditz formen komuntadurak, esaterako, laguntzen diote gehienetan mugagabetik bereizten), semiotika eta morfosintaxiaren aldetik polikiago aztertzeko gaia genuke hor. Bestalde, agian plurala ezberdintzeko beharra ere hor legoke semiotikoki, baina gertakari historikoak gertatu diren bezala gertatu dira eta ez zaio bereizkuntza morfonologikorako aukera sortu. Bestalde, badirudi plural eta mugagabeak bereizten dituzten ezaugarri prosodikoak badirela (BBI eta azentu ereduen datuak erkatu beharko genituzke; ik., dena den, Hualde 1993a).

behar lukeen kausa-ondorio bikotean. Aipatu izan diren (eta, dudarik gabe, izan daitezkeen) azentu ezberdintasunak areago lirateke, nere ikuspegitik, ergatibo eta pluralaren arteko diferentzia morfologikoaren ondorio fonologiko BBI ezaren kausa baino. Nolabait beste aukera morfonologiko (morfoprosodiko) bat izan liteke, baina bide horretan aurrera egiteak gure gaurko gaitik aterako gintuzke.

Singular paradigmán bertan ere baditu salbuespenak gai dugun ordezkatzek. Lekuko kasuetan, zehazki inesibo singularrak dakarren /an/ atzizkiarekin, espero genezakeen BBI ez da gertatzen, nahiz eta /a/ amaieran duten erroekin bi beheko bokalen bilkura gertatu (e.b., /anka+an/). Aukera fonologikoa lukeen kasu honetan ere, pluralean bezala, BBI ez da gertatzen. Horren ordezt, berriz ere pluralean bezala, bokal bien bakuntzea aurkitzen dugu. Horrela bada, *anka* inesiboan *ankan* da (eta ez *\*\*ankean*)<sup>9</sup>.

|     |        |                                    |
|-----|--------|------------------------------------|
| (5) | ABS.   | INES.                              |
|     | -a     | -an                                |
|     | ankea  | ankan (eta ez <i>** ankean</i> )   |
|     | gauzea | gauzan (eta ez <i>** gauzean</i> ) |

Gorago ikusi bezala (ik. (3) eta (5) adibideak), /a+a/ bilkurak, BBI pairatzen ez duenean, bi /a/ horien bakuntzea gertatzen da eta [a] bokal bakarrak gauzatzen du azalean oinarrizko bilkura. Fonologiarion artean ezaguna den *elsewhere condition* kiparskyarraren itzulpentzat *gainerako baldintza* onartuko balitz, /a+a/—>[a] Bilkura Bakuntzea *gainerako* ordezkatzek delá esan genezake (ikus 2.3). Izan ere, Bilkura Bakuntze hori izaten da, beheko bokalen bilkurei ematen zaien irtenbidea BBI ez duten euskaretan oro har (Euskara Batua barne).

Ez dago bokal luzerazko aurkakotasun fonologikorik dagozkigun euskalkietan. Bokal berdinen bilkuretatik sor litezkeen luzatzeak bakuntzez konpondu ohi dira. Egia da inpresio ganean aritzearen arriskua hartzen ari naizela eta azterketa luzeagoa merezi lukeela. Aztertzen ari garen ordezkatzearen haria ez galtzeko, gainera, ez naiz hasiko hemen bokal luzeraz egin diren lanen eztabaidan. Baina, esan dezadan labur, inork inoiz aipatu izan dituen *behera* [be:ra] vs. *bera* [bera] bezalakoak areago iruditzen zait daudela hizkuntzalarion gogoetan hiztunen ahoskeretan baino. Ez dut ezer esaten, hemen eta oraingo, ekialdeko euskarez.

<sup>9</sup> Aipatzekoa da hemen forma izardun horien antzekoak BBIRik ez duten euskara batzuetan posible direla. Dena den ez da ahaztu behar horien analisisan berranalisiak sortu epentesi aukera ere posible delá (\*/ank+an/, \*/gaus+an/—> ank-i-an, gauz-i-an).

Esan izan da badela aldagarritasunik idatzian bi <a> bokalen bilkura (gehienetan <h> tarteko euskara batuan) duten formetan, e. b., *zahar*. Alegia horiek, batzuetan, bokal luzez ahoskatzen direla. Uste dut luzatze horietarako baldintza *sine qua non* dela hiztunak forma idatzia ezagutzea eta idatziaren eragina dela hor askotan ahoskera hiperzuzenen erantzule. Bestelako hiztunek, alfabetatugabeak edo idatziaren mendekotasunik ez dutenek beren ahoskeretan, berdin luza dezaketela <zahartu da gure gizona!> bezalako esaldi bateko lehen bokal irekia, zein <sartu da (azkenik) gure gizona etxean!> hizketaren adieragarritasun beharren arabera, enfasiगतिक-edo.

Bestalde, sinistekoa da bokalen luze-laburra aldakor izatea, bokal irekien (edo, oro har, berdinen) bilkura, tarteko kontsonanteen kenketa sinkronikoetatik datorrenean (e.b. *eskaratza* [eska(:)tsa]), areago ahoskera kontsonantedun eta kontsonantegabeak txandaka dabiltzanean. Aldakortasuna, aurkakotasun fonemiko baten jaiogune izan liteke, baina ez da, berez, luzeraren fonemikotasunaren froga. Zerbait erakustekotan, aldagarritasunak bilakabide fonologiko baten emankortasun sinkronikoa erakusten du. Aldakortasuna eta hautazkotasuna, hain zuzen ere, bilakabide fonologikoen (eta ez erregela morfologikoen) bereizgarri dira, hauexek baitira, hizkuntzaren ahoskeren fonologiaren eta ez gramatikaren osagai izanik, oharmen eta ebakera baldintza aldakorren mende egon daitezkeenak.

Horrela, bada, Bilkura Bakuntze edo (nahi bada) bokal kenketa horren orokortasuna zabala da bai hizkera eta bai pairatzen duten kasu morfologikoen aldetik ere. Bakuntze edo kenketa erregela hori izango genuke, (3) zenbakipean eskaintzen diren adibidezko plural formen erantzule eta baita (5) zenbakipeko inesiboena ere. Dena den, hemen gauzak aurreratzen eta desbideratzen ari gara, BBI baita lan honen gai nagusia, *Bokal Bakuntzea* osagarri badu ere.

### 3.2. Bestek esanak

Ia gainerako gai guztietan bezala, orain arteko analisisen ardatz Mitxelenaren lan emankorra dugu. Mitxelenaren euskal fonologia eta morfologiaren azterketa historiko ugarien artean aurkitzen dugu singularraren salbuespen izatearen konponbide diakronikoa (ikus Michelena [1981]1987, § 9). Bere hipotesiaren arabera BBI emankor zenean, plural (eta inesibo) markak ez ziren oraindik atzizki bihurtu.

Gauza onartua da oro har hizkuntzalari eta filologilari artean egungo euskararen singular eta plural markak ziurrenera noizbait beregaintasuna galdu

zuten izenaren ondorengo erakusleak izan zirela. Itxura denez, erakusle horiek klitikotu egin zitzaizkion izen edo izenkiari atzizki bihurtzeraino. Ongi erakutsi du Mitxelenak halaber singularra plurala baino lehenago itsatsi bide zitzaiola elementu lexikoari, alegia, lehenago bihurtu bide zela atzizki. Orduan, singularra atzizkitu zenean, BBI euskal fonologiaren ordezkatzeko emankor izango zen eta, horregatik (2) paradigmako forma singularrak sortu ziren.

Hipotesi horren arabera, plurala atzizki egin zenerako, ordea, BBI-ren emankortasuna agortua zen. BBI-ren bidearen ordezkari, plural berriek *Bokal Bakuntzearen* bidea hartu behar izan zuten, hori baitzen hizkuntzaren fonologiak orduan bokal berdinen bilkurei eskaintzen zien moldabidea.

Bokal elkarketaz egin diren analisi sinkronikoei dagokienez, ez du inork Mitxelenaren hipotesia ukatu. *Mutatis mutandis* De Rijk-ek (1981: 89-94) ere marka morfologikoen zahartasun erlatiboa erabiltzen du inesiboaren salbuespen itxuraz ari delarik, nahiz eta bera marka horien tankera fonologikoz baliatu batik bat. Gero eta luze behar lukeena labur kontatuz, esan genezake berreraiketa diakronikoa eratorpen fonologikoaren erregela hurrenkera sinkronikora itzultzen duela. Hurrenkera horretan BBI *Bokal Bakuntzea* baino lehenago jartzen du, inesibo singularra BBI-tik babesturik geratzeko proposatzen duelarik:

- a) /-gan/ dela inesiboaren azpiko aurkezpena eta
- b) bokalarteko /g/-*Kenketa* erregela bat dagoela BBI eta *Bakuntzearen* artean.

Horrela, inesiboan bokal ireki biak elkarren ondoan gertatzean, bien *bakuntzea* suertatuko da:

|                          |          |            |
|--------------------------|----------|------------|
| (6)                      | /gona+a/ | /gona+gan/ |
| 1. BBI:                  | gonea    | _____      |
| 2. /g/- <i>Kenketa</i> : | _____    | gonaan     |
| 3. <i>Bakuntzea</i> :    |          | gonan      |

Nire ustez azpiko aurkezpen horren alde De Rijk-ek ematen dituen argudioak arrazoizkoak dira. Ez naiz bakarra, noski. William Jakobsen-ek (1977) ere aipatzen du De Rijk eta oso antzekoa dena proposatzen du. Izan ere, ez da halabeharrez ateratako zerbait. Dakigunez, bizidunen deklinabidean leku kasu prototipikoetan De Rijk-en proposamenaren aldeko zantzuak dauzkagu : cf., esate baterako, *seme-a-(ren)-ga-n*. Genitiboarekin edo genitiborik gabe, ezaguna eta bizia da -ga- artizkiaren erabilera leku kasuetan. Ongi horraino. Toponimo eta lekuarekin zerikusia duten deituetan ere aurkitzen dugu dela-

ko /ga/ horren arrastorik, beraz ederki asko izan liteke nolabaiteko lekutasuna adierazten duen afixuren bat.

Kontsonante belare ahostuna desagertu egin bide da bokalarteko inguru-neetan, alegia, bizigabeen erro azkeneko bokalaren ondoren gertatzen zenean (esaterako goragoko (6) /gona+gan/). Haatik genitiboaren kontsonanteak edo (esanahiarekin loturiko?) beste zerbaitek babestu bide du /g/ hori bizidunetan eta, horregatik, orain arte bizirik iraun digu.

Ez daukat ezer De Rijk-en azalbidearen kontra, azalbide edo berreraiketa diakronikotzat hartzen bada. Badira, gainera, ni baino gehiago dakitenak euskararen diakroniaz hori epaitzeko. Sinkronian, ordea, zalantza sakonak ditut /ga/ hori inesiboaren azpiko aurkezpenean egoteaz.

Eman dezagun une batez, naizen hiztunaz ahaztuta, nire hizkuntzalari nortasunari ematen diodala amore osorik, gramatikaren ekonomia formalagatik edozer ordaintzera prest egoteraino. Onartu beharko nuke *free ride* bat, bestela ere hizkuntzan emankor den bokalarteko belare-kenketaren bizkar (cf. *egin* /egin/ [ejn], *sagar* /sagar/ [sa:r] [sar])<sup>9</sup>. Horrekin inesiboak BBI ez betetzeko arrazoa izango luke. Beldur naiz, ordea, delako *free ride* hori ez ote zen azken batean garestitxo aterako:

- a) Lehen arazoa: inesiboko /ga/ afixuko belarea ezabatzeko erabiliko genukeen kenketa hori egungo gramatikan bilakabide sinkroniko bizia da, baina hautazkoa da, neurri handi batean baldintza fonostilistiko eta soziofonologikoekin lotua; hartara, baldintza bat gehitu beharko genioke gure gramatikari adieraziz kenketak nahitaezko behar lukeela bizigabeen deklinabideko leku kasuetan. Ez litzateke, beraz, hasieran azaldu bezain merke aterako kontua, ez litzateke behintzat doan izango /-ga-/ lekuzkoaren belare kenketa.
- b) Bigarren arazoa: kenketa debekatu egin beharko litzateke izenorde eta erakusleen leku kasuetan, horietan ez baita inoiz gertatzen, askotan bokalarteko ingurune-baldintza bete arren (cf. *nigan*, *niregan*; *zuga*, *zuregan*).<sup>10</sup>
- c) Areago (ziurrenik hauxe da faktore nahasgarriena) izen berezi eta bizidunetan ere debekatu egin behar da belare kenketa. Garbi dago euskaraz erroa inesiboarekin lotzeko genitiboaren tartekotasuna ez dela

<sup>9</sup> *Free ride* izena Arnold Zwicky-ri (1970) zor diot. Izenaz baterako izanaz ere iruzkin mamitsuak egiten dira artikulu horretan.

<sup>10</sup> Egia da erakusleak errazago libratzen direla arazo honetatik kontsonante ondorengo ingurune babeslea agertzen dutelako gehienetan (cf. *honengan*, *horengan*).

beharrezko honez gero (cf. *neskarengan*, baina baita *neskagan* ere). De Rijk-en proposamenak belarearen kenketa bete-betean emankor zen garaian genitiboaren nahitaezkotasunean sinistra garamatza.

Pluralak ez dira azaltzen bere lan honetan, baina lehenagoko batean bai (De Rijk 1970). Bertan pluralaz esaten da gauza xelebrea dela, «a curious morphological condition» izendatzen denaren mende dagoena. Inesiboaz ere *misteriotsua* dela esaten da.

Izan ere, pluralerako ere proposatu da azpiko aurkezpenean legokeen /g/ gerora, BBI eragotzi ondoren, desagertuko litzatekeena. Pluralean azpiko aurkezpen horrek nolabaiteko esanahiarekin izan lezakeen paralelotasuna zailagoa da aurkitzen lekuko kasuetan baino. Alegia, zailago da asmatzen oinarritzko /g/ horren eramalea zeren marka edo adierazle litzatekeen. Gainera, inesiboko /g/ren desagertzeak behar lituzkeen baldintza guztiak behar lituzke pluralarenak ere, noski.<sup>11</sup>

Baldintza morfologiko eta lexiko horiek guztiek /g/-*Kenketari* erregela (morfonologiko) itxura ematen dio fonologilari naturalen irudiko edo, erregela lexikoarena fonologilari lexikalenerako (ik. § 2 erregela eta bilakabide bereizkuntzaz). Ez da bada.

Badago bederen /g/-*Kenketa* bilakabide fonologikoa: goraxeago aipatu den hautazko kenketa. Ordezkatze hori, agertzen duen aldakortasun fonoesitistiko eta soziofonologikoagatik ezin daiteke erregela morfonologikotzat hartu. Prezio beragatik, proposatuko nuke BBI dela erregela morfonologiko dena eta kitto: horrela ez genuke /g/-*Kenketa* baldinpetu beharko, ez beste inolako gehigarrikerantziko gure fonologian (beherago luzeago, ik. § 3.3).

De Rijk-en esplikazioek ibilbide diakroniko sinesgarria eskaintzen digute ulertzeko nola tankeratu den historikoki egungo egoera. Azalbide sinkronikoa, ordea, ez da garden geratzen.

Hualde-k (1993a:30) ontzat ematen bide du Mitxelenaren irtenbidea, kronologia horixe baita euskal azentuaz proposatzen duen berreraikuntzarako erabiltzen duen hipotesia<sup>12</sup>. Ez du eztabaidatzen plurala BBI-ren mendetasu-

<sup>11</sup> Inesiboko /ga/ horri nolabaiteko (leku?) esanahia asmatzea ez litzateke zailegi; zubererazko bi inesibo singularren esanahi aurkakotasunak horretarako bide emango luke: cf. *etxin* 'in the house' (<etxian<etxean<\*etxe-ga-n) and *etxen* 'at home' (<etxe-n).

<sup>12</sup> Ezin dut onartu esaten duena: «The evidence Michelena adduces is completely independent from accentual facts», ez badu esan nahi Mitxelenak azentua ez duela aipatzen bere singular eta pluralen zahartasunaren esplikazio laburrean. Ikus, arazo honen inguruan, Oñederra (argitaratzeko).

netik begiratzeko argudioaren balio sinkronikoa. Bere alde, dena den, aintzat hartzekoa da bere lanaren kezka nagusia singular eta pluralen azentu jokabide desberdinak direla eta ez bokal elkarketaren jokabide ezberdinak.

Michelena-k ([1981]1987:49) bere hipotesia erlatibo eginez esandako hitzak gogoan («Caben otras explicaciones desde el punto de vista descriptivo: no sólo caben sino que sin duda son necesarias»), ekingo diot nire lan honen jarraipenari. Ondoren esaten duena ere ez zait txantxetako gertatzen, esaten baitu historikoki erreal diren formak ez direnak baino azpiko aurkezpen hobe eskaintzen digutela.

### 3.3. Bestelako begirada bat eta esplikabide saioa

Mitxelenaren hitzen haritik aurrera egingo nuke gehituz ziurrenik oinarriko forma *historikoak* direla, noski, onenak esplikazio eta zantzu-biltze *historikorako*. Horri erantsita oraina ere historia dela eta hizkuntzaren historia hil artean bizirik dagoela, sortzen zaidan galdera da: BBI-ren emankortasuna agortua bazen plural markak atzizki bihurtu zirenerako, nolatan da oraindik emankor? Nola ulertu BBI-dun euskalkietako hitzunek orain *autopistea*, *telebistea*, *astronauetea* (<autopista+a, telebista+a, astronauta+a) eta horien kidekoak esatea? BBI emankor ez bada, Bergarako agure batek, Espainiako telebisiotik ikasi berria duena ahoskatzean, zergatik esaten du *atmosfera* (<—atmosfera<atmosfera+a, cf. gatz. *atmósfera*)?

Maileguen adibide garden horiek gabe ere garbi dago egungo emankortasun sinkronikoa. Nahikoa da *neska* (mugagabe) / *neskea* (singular) edo *neskea* / *neskak* bezalako pareetako txandakatzeaz ohartzea, hitzun bera baita singularra era batera eta plurala bestera erakartzen dituena. Txandakatzea (e.b., a/e: mugagabe *neska* vs. singular *neskea* edo e/ø: singular *neskea* vs. plural *neskak*) beraz, gaur, egun, gertatzen da<sup>13</sup>. Ez zen hil aurrehistoriako aspaldi hartan, plurala oraindik atzizki ez zenean.

Nire ustez, hitzunik erregela morfonologiko bat ari dira erabiltzen. Ez naiz, noski, BBI ordezkatzeko morfonologikoa dela esaten duen lehena. Hualde, Elordieta & Elordieta-k (1994:46) ere horrela deskribatzen dute, esaten baitu-

<sup>13</sup> Singular eta mugagabearentzako atzizki desberdinak proposatuz konpon ote litekeen ala ez gainezka egiten didan galdera da. Dena den, horrela ere, nolabaiteko txandakatze morfonologikoa onartuko genuke. Zalantza litzateke norainoko morfonologikotasuna dagoen dantzan, ez fonologikotasun soila.

te: «The raising of /a/ before another vowel is thus a process restricted to singular inflectional domains».

Hortxe ikusten dut nik koxka. Uste dut deskripzioa, onarpena baino aurrerago jo beharko genukeela esplikazio osoagora iristeko.

Horregatik, erregela morfonologikoa dela esatean zer den baino gehiago zer ez den adierazi nahi dut: ez da bilakabide. Hitzak David Stamperen *Fonologia Naturalaren terminologiaren arabera harturik*, horrek esan nahi du BBI ez dela *fonologikoa*, ez dagokiola hizkuntzaren fonologiari<sup>14</sup>. BBI-k aspaldi galdu zuen euskal fonologiaren, euskal ahoskeraren disimilazio izaera.

Euskal gramatikaren erregela morfonologiko bihurtu zen eta, hartara, arauzko murrizte gramatikalak ditu, hala nola pluraletan ez gertatzea, ez eta lekuzko kasuetan edo hitz elkartuetan, eta abar. Egokiago eta argigarriago litzatekeelako, proposatzen dut murriztea honela adieraztea:

(7)

BBI singularrean bakarrik gertatzen da.

Nolanahi ere, morfologikoki (baita lexikoki ere batzuetan) mugaturiko txandakatze lokala dugu esku artean eta ez, inola ere, euskal ahoskerari dagokion baldintza fonologiko globala. Bestela esan, ez da euskal hiztunak hotsak kateatzeko duen moldea, bere singular batzuk egituratzeko modua baizik.

Haatik /aa/—> [a] Bakuntzea bada euskal fonologiaren bilakabide fonologikoa, sorrera eta izatez hala delako eta, gainera, ingurune eta bestelako baldintza fonologikoak betetzen diren guztietan gertatzen delako.

Horrela, biak, BBI eta bokal-bilkura bakuntzea erabat emankor dira zein bere esparruan: BBI morfonologikoki emankor da eta singularraren eraketan gertatzen da; *Bokal Bakuntzea* emankor da eta fonologikoki aukera duen orotan gauzatzen da.

Hemen proposatzen ari naizena, noski, ez dago Mitxelenaren esplikazio diakronikoaren aurka. Hura behar du funtsean eta hura osatzeko saioa da. Gorago esan bezala, Mitxelenaren esplikazioa diakronikoa da eta arazoaren alderdi diakronikoa konpontzen du. Hau da, numero paradigmaren historia ezagutzeko eta ulertzeko alderdi morfologiko zein fonologikoan oso da

<sup>14</sup> Teoria ezagutzen ez duenarentzat baliagarri dira, besteak beste, Donegan/Stampe (1979) eta Lampe (1979).

lagungarri eta egiantzeko proposatzea singular marken atzizkitzea BBI disimilazioa bizirik zegoen garaian gertatu zela eta, horregatik, disimilazio hori betetzen dutela, pluraleko formak beranduago eraiki zirelarik –beranduegi BBI disimilazioaren bidea hartzeko–. Horrek ordea esplikaziorik gabe uzten du oraingo BBI ordezkatzearen oparotasuna.

Besterik gabe, gezurra da BBI agortu egin zela, emankor izateari utzi ziola. Bilakabide fonologiko moduan agortu zen: atera egin zen euskararen fonologiatik, baina oraindik bizirik dago eta oparo singular marken morfologian.<sup>15</sup>

Izan ere, noizbait disimilazio bilakabide izandako hau da orain mugagabe eta singularraren arteko diferentzia nagusia (alderdi segmentalari dagokionean, bakarra) erro azkenean /a/ duten hitzetan. Ausartzen naiz esatera, gainera, bere nortasun fonologikoa galtzeak erraztu egin duela ordezkatzearen morfologikotzea mugatu singularraren markatazaile gisa. Gogora gorago jasotako Stamperen aipua ideia honen alde (§ 2, 1).

BBI erregela ez duten euskaretan Bakuntzea da beti gertatzen dena, baita singularraren eratzean ere. Berez, BBI-rik gabeko hizkeretan eratorpen fonologikoa erro eta mugatzailearen bilkuratik hasten dela esan genezake (/neska+a/ litzateke abiapuntua singularrean). BBI dutenetan, berriz, ordezkatzeko morfonologikoak tarteko babeslea ezartzen du eta, eratorpen fonologikoa hasten denerako, ez da gelditzen singularrean bi bokal irekiren bilkurarik (/neska+a/>/neskea/ litzateke abiapuntua singularrean).

Bada hemen, singularraren babesaz ari garela, erreparatzeko kontu bat. Ezaguna da nola BBI-rik ez dugun gipuzkoar hitzunez, gabezia horrek dakarren mugagabe eta singularraren arteko berdintzea (mg. *neska*, sg. *neska*), berranalisiaren bidez ordaintzen dugun. Erro azkeneko /-a/ (organikoa deitzen den hori, alegia) fonotaktikoki posible den guztietan mugatzailetzat hartzen da eta erroak kontsonantez amaitutakotzat. Horrela, *gauza* berranaliziz

<sup>15</sup> Zenbait daturen arabera ordezkatzeko noizbait fonologikoki zabalagoa izan zela pentsa daiteke. Michelenak (1977, § 5.4) *Oleaga* (<ola+aga) toponimoa eskaintzen du adibide, eta ekialdeko euskalkien /e/-dun erro forma berritzaileak (e.g. *azkure* < atz+gura, agian orain batik bat mendebaldeko den /azkura+a/[azkurea] ordezkatzearen bitartez). Bizkaierazko *zarean* aditz forma bezalakoak (De Rijk 1970,152) ere izan litezke BBI ordezkatzeko erabat fonologikoa zeneko arrastoak (ik. Michelena loc. cit. beste aditz forma batzuez). Orduan ezin bide zen izen-formen eremukoa bakarrik izan, noski. Bide batez, hemen berdin zaigu oinarritzko formak orduan /sara+an/ ala /saraa+n/ analizatzen ziren. Idem erkaketa formez: *ozpera*, *ozperea* (*ozpera+ago*).

/gaus+a/ bihurtzen da eta, *gauza* singularizat hartzen den bitartean, *gauz* da mugagabe berria.<sup>16</sup>

Singular markatzaile egitekoa onartzen bazaio BBI ordezkatzeari, zenbait arazo baretzen dira. Esaterako, inesiboaren harrigarritasuna ez da horrenbestera lekuzko kasuen afixu eraikuntzari begiratzen badiogu<sup>17</sup>:

| (7) | <i>Mugag.</i> | <i>Singular</i> | <i>Plural</i> |
|-----|---------------|-----------------|---------------|
|     | -tan          | -an             | -etan         |
|     | abeleratan    | abeleran        | abeleretan    |
|     | gonatan       | gonan           | gonetan       |
|     | gauzatan      | gauzan          | gauzetan      |
|     | tangatan      | tangan          | tangetan      |

Nolabait esan daiteke singularra markatua dagoela lekuzko /-ta-/ horren ezagatik: hori dela eta, mugagabe eta singularraren arteko berdintzea ez da arrisku. Ez dago BBI-ren beharrik.

Ez dezala inork pentsa BBI-ren sorrera singular markatzearekin lotzen dudala, are gutxiago hori duela kausa pentsatzen dudala. Izan ere sorrera fonologiari dagokio eta disimilazio modura sortu bide zen hizkera BBI-duntan. Gerora, fonologiaren baldintzapetik libratutakoan eta singularrari lotua egonik bereziki, sortu zaio kategoria morfologikoarekiko loturaren aukera. Nolabait esan, lotura horrek ez du baliorik leku kasuetan. Nahiz eta, ziurrenik, De Rijk-ek proposatu /ga/ artizkia izan BBI ez gertatzearen lehen arrazoi, /g/-*Kenketa* jazo zenean ere, BBI-k ez zuen analogiaz-edo singularraren lekuzko azpiatalera hedatzeko beharrik izan.

Rotaetxe-k (1978:242, 250 hh.) jasotzen duen BBI-ren beste salbuespen atal bat ere bada, lexikoa da izatez muga kasu honetan: famili harremanak adierazten dituzten izen zenbaitek ere ez dute BBI ordezkatzearen arrastorik agertzen beren deklinabidean. Horien artean daude *ama*, *aita*, *amama*, *aitita*, berdin izan daitezkeenak mugagabe edo singular BBI duten hizkeretan ere. *Osaba* adibidearen salbuespenaz, uste dut proposa litekeela BBI singular markatzailetzat hartzearekin bat datorren esplikazio modukoa. Gehienetan izen

<sup>16</sup> Gai hau poliki aztertu beharko litzateke. Ez litzateke txarra euskararen barne-baldintza fonotaktiko edo silaba egitura paradigmaticoen ezagutza sakontzeko. Dirudien ez dira onartzen *\*\*nesk-*, *\*\*gast-* (baina cf. *bost*). Horren ondoan, ordea, agian *\*ank-* (ik. gorago-ko 8. oinoharra) onartzen dela jarri beharko genuke.

<sup>17</sup> Datuak sinpletzen ari naiz. Gauzak ez korapilatzeagatik, *neska* kendu da zerrendatik, *-ga-* artizkiaren erabileraz gainera, *neskatan* bezalakoak ere badirelako. Gaia interesgarri izanik ere, ez da gaur hemen zuzenean dagokiguna.

horien edukia (*signans* horien *signatum*, alegia) bakarria izan ohi da etxe batean. Amari dagokiona litzateke, multzoa hierarkikoki egituratuko bagenu, prototipoa. Agian hortik ulerenezake *alaba* hitzari dagokionaren jokabidea, izan ere horretan gertatzen baita BBI: *alabea* (<— /alaba+a/).<sup>18</sup>

Esan bezala (§ 3.1), zenbait hizkeratan ordezkatzeari zeharo opako egin da, garapen fonologikoa dela eta, zenbait ordezkatzereen bazkatze (*feeding*) hurrenkeran metatu direlako bokal bilkuran (ikus, e.b., Ondarroa mg. *andra* vs. sg. *andri* <— *andri*: <— *andrie* <— *andria* <— *andrea* < *andra*+a). Fonologiaren ikuspuntutik nahasgarri gerta daitekeena, ordea, mesedegarri da morfologiarenetik. BBI singular markatzaile bada, gero eta desberdinago azala (*signans*), hobeto beteko du eduki bereizkuntza adierazteko egitekoa (cf. Dressler 1985, Dressler et al. 1987).

#### 4. AZKEN OHARRAK

Aztertu duguna (BBI) ez da bilakabide (Stamperen zentzu teknikoenean): erregela da eta horregatik dirudi "salbuespenak" dituela, fonologiatik bakarrik begiraturaz gero: «(...) morphology (including morphonology) is a distinct part of language from phonology, governed by distinct kinds of laws» (Stampe, 1968:1). Alderdi horretatik, ez dago salbuespenik, ez gabiltzalako fonologian. Fonologikoki motibaturiko ordezkatzeari eta bestelakoak bereizteak argi berria ematen digu orain arte ulergaitz zirenen azterketarako.

Ez dut uste inor pozik egon zitekeenik singularra eta plurala gramatika sinkronikoaren bi maila ezberdinetan (*strata* edo direlakoak direla) jarrita. BBI, morfologikoki mugatua dagoelako, fonologiatik ateratzeak erantzun hobe ematen digulakoan nago. Esan nahi dut:

1. Ordezkatzeari motak (Kruszewski-ren txandakatzeari moten erara) bereizten ez badira, ez badugu onartzen hiztunek bilakabide linguistiko des-

<sup>18</sup> Rotaetxe-ren corpusean ez da hitz hori agertzen (cf. *arrebea* ere). Dударik gabe gertuko senide izatearen baldintza betetzen du, baina halaz ere salbuespen da (ez bada behintzat *osaba* gertuagokotzat hartzen *alaba* baino). Cf. halaber Ondarroa *andri* (*andri*: <*andrie*<*andria*<*andrea*<*andra*+a) —senarrarentzat emaztea esan nahi duena, baina baita ere oro har emakume—, Deba *andria*, etc. Uste dut Rotaetxeren eta nire interpretazioen artean ez dagoela kontraesanik (berea ulertzen dudanez neurrian). *Osaba* hitzari dagokionean, nire Ondarroako berriemaileak aldakortasuna erakutsi zidan (abs. *osaba*. / erg. *osabik*). Oraindik aztertu ez dudanez ezustekoa izan zen.

berdinak baliatzen dituztela, BBI-ren paradoxak irauten du. Nathanek (1995, 113) fonologiaren molde kognitiboan esandako hitzak mailegatuko ditut aztertu duguna epaitzeko: BBI bezalakoetan hiztunak ez dira ari bilakabide fonologikoak erabiltzen, ez dira ari hotsak prozesatzen «on behalf of the physical equipment making the sounds», baizik eta hots horien bidez eraikitako egitura gramatikal edo lexikoen arabera. Alegia, ez da /-a/ bokala igotzea dakarrena, singular atzizkia baizik, mugatu marka morfologikoa eta ez elementu fonikoa.

2. Fonologia ez dela jakinda, ongi legoke zer den jakitea. Hori eztabaidaren ur handi eta arriskutsuagoetan sartzea bada ere, uste dut euskarazko kasu honen oraingo egoerak ematen digula zerbait esateko oin. BBI singularraren markatzaile bihurtu dela onar liteke, egiteko hori mugatzailearekiko desberdintasunean gauzatzen delarik. Ez dut esan nahi hori denik erregelaren arrazoi, baizik eta historia fonologikoak hor utzi duenez gero, hizkuntzaren morfologiak etekin hori ateratzen diola (gogoratu alemanezko umlaut noizbait fonologikoak zenbait kasutan plural markatzaile gisa betetzen duen egiteko morfologikoa). Esplikazio hau ez da, noski, ehuneko ehunean betegarri, baina singularra eta plurala sinkronikoki gramatikaren maila ezberdinetan dauzkagula sinistea baino irensgarriago gertatzen zait.

Gauzak ulertzen ditudan moduan, honela geundeke:

- a) Morfonologia morfologiari dagokio fonologiari baino areago, gertakari morfonologiko guztiek erabilera morfologikoa ez badute ere.
- b) Morfologia hitzen barne egitura morfemikoa baino zabalagoa da eta morfologiaren azterketak ere halako izan behar luke: morfologia hitzak osatzeko gaitasun linguistikoa da eta hitzen arteko bereizkuntza gramatikal eta lexikoak egiteko ahalmena ematen digun ezagutza.
- c) BBI erregela bada, eratorpen fonologikoa bazkatzen du eta, horregatik, fonologiazkoa den Bakuntzea baino lehenago gertatzen da hitzen eratorpenean. Biak fonologiko zirenean ere, disimilaziozko fortitioa zelako gertatzen zen kenketazko lenitioa den bakuntzea baino lehen.

Hauek eta Fonologia Naturalak dakartzan izatezko beste zenbait bereizkuntza ontologikok batzuetan erantzunak atzeratu egiten dizkigute, erabateko borobiltasunik gabeko hipotesietan barnerarazten gaituztelarik. Halaz ere, ez digute uzten sinkronia diakroniarik gabe (edo alderantziz) ulertzen eta hori ona delakoan nago. Nire ustez arazoak etiketaz sailkatzea ez da nahiko hizkuntzaren nondik-norakoak *ulertu* nahi baditugu.

## BIBLIOGRAFIA

- CHOMSKY, Noah / HALLE, Morris, 1968. *The Sound Pattern of English*. New York, Harper & Row. // *Principes de Phonologie Générative*. Paris: Éditions du Seuil, 1973 [SPE I / IV].
- DONEGAN, Patricia Jane and STAMPE, David, 1979. "The Study of Natural Phonology". *Current Approaches to Phonological Theory*. Daniel A. Dinnsen, ed. Bloomington: IUP. 126-173.
- DRESSLER, Wolfgang U., 1985a. "A new view of morpheme structure rules (Prelexical Rules). *Natural Phonology from Eisenstadt*. W.U. Dressler and Livia Tonelli, eds. Padova: CLESP. 33-42.
- DRESSLER, Wolfgang U. 1985b. *Morphonology*. Ann Arbor: Karoma.
- DRESSLER, Wolfgang U.; MAYERTHALER, Willi; WURZEL, Wolfgang U.; PANAGL, Oskar 1987. *Leitmotifs in Natural Morphology*. John Benjamins.
- ETXEBERRIA, Pilartxo, 1990. *Zaldibiako bokalen azterketa akustikoa*. Universidad de Deusto: Cuadernos Universitarios.
- GAMINDE, Iñaki, 1988. *Ahozko bizakieraz*. Bilbo: AEK.
- HUALDE, José Ignacio, 1993a. "On the historical origin of Basque accentuation". *Diachronica* X-1, 1-38.
- HUALDE, José Ignacio, 1993b. "Phonologically unmotivated changes in language contact: Spanish borrowings in Basque". *Folia Linguistica* XXVII, 1-25.
- HUALDE, José Ignacio; ELORDIETA, Gorka & ELORDIETA, Arantzazu 1994. *The Basque Dialect of Lekeitio*. ASJU Monographs XXXI.
- JACOBSEN, William H., 1977. "The Basque locative suffix". *Anglo-American Contributions to Basque Studies. Essays in Honor of Jon Bilbao*. W. A. Douglass, Richard W. Etulain, W. H. Jacobsen, (eds.), 163-168.
- KRUSZEWSKI, Nikolai, [1881] 1978. "On sound alternation". *Readings in Historical Phonology: Chapters in the Theory of Sound Change*. Philip Baldi / Ronald N. Werth, eds. The Pennsylvania State University Press.
- MICHELENA, Luis, 1964. *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro.
- MICHELENA, Luis, 1977. *Fonética histórica vasca*. San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa.
- MICHELENA, Luis, [1981] 1987. "Lengua común y dialectos vascos". *Palabras y Textos*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 35-55.

MICHELENA, Luis, [1957] 1988. "Las antiguas consonantes vascas". *Sobre Historia de la Lengua Vasca* I. Donostia-San Sebastián: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», 166-189.

OÑEDERRA, Miren L., 1994. "On a case of vowel assimilation in Basque". *Phonologica 1992*. Wolfgang U. Dressler, Martin Prinzhorn & John R. Rennison, eds. Torino: Rosenberg & Sellier, 165-171.

OÑEDERRA, Miren L., (argitaratzeko). Sobre fonética y fonología: apuntes para una lectura de Michelena.

DE RIJK, Rudolf P. G. 1970. "Vowel interaction in Bizcayan Basque". *Fontes Linguae Vasconum* II,5, 149-167.

DE RIJK, Rudolf P. G. 1981. "Euskal morfologiaren zenbait gorabehera". *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, 83-101.

ROTAETXE, Karmele, 1978. *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*. Durango: Leopoldo Zugaza.

SAPIR, Edward, 1921. *Language: An Introduction to the Study of Speech*. New York: Harcourt Brace Jovanovich. / *El Lenguaje*, México: Fondo de Cultura Económica, 1954.

SINGH, Rajendra, 1995. "Natural Phono(morpho)logy: A view from the outside". *Natural Phonology: the State of the Art*. Bernhard Hurch & Richard A. Rhodes, eds. Berlin: Mouton de Gruyter, 1-37.

SORNICOLA, Rosanna, 1993. "The many routes of functionalism". *Rivista di Linguistica* 5.1, 157-178.

STAMPE, David, 1979. *A Dissertation on Natural Phonology*. New York: Garland Publishing Co./Bloomington: Indiana University Linguistics Club.

STAMPE, David. Yes, Virginia ... (ms.).

TXILLARDEGI [J. L. Alvarez Enparantza]. 1980. *Euskal Fonologia*. San Sebastián: Ediciones Vascas.

WURZEL, Wolfgang U., 1980. Ways of morphologizing phonological rules. *Historical Morphology*. Jacek Fisiak, ed. The Hague: Mouton, 443-462.

ZWICKY, Arnold, 1970. The Free-Ride principle and two rules of complete assimilation in English. *Papers from the Regional Meeting of the Chicago Linguistic Society*. CLS 6, 579-588.